

bidegileak



Jose Antonio Retolaza (1929)

Egilea:

ASIER ASTIGARRAGA

Lehenengo urteak

Jose Antonio Retolaza Ibarguengoitia, *Kili-Kiliren* eta euskararen aldeko ekinbide askoren aita, 1929ko ekainaren 6an jaio zen, Bilbon. Manuel zuen aita; ama, Teresa. Hiru anaia ziren etxean: Juan, Luis eta Jose Antonio, gazteena.

Bilbon garai horretan Gran Vía kalean Jesusen Bihotzaren plazatik hurbil zegoen *Escuela Vasca* deitzen zitzaion *Errotatxueta* ikastola sortu berrira bidali zuen amak, ume-umetan. Ez zuen baina denbora lar egin han eta, beste anaia biekin batera egon zedin, *Santiago Apóstol* ikastetxera eraman zuten.

Guda sortu zenean Muxikara eraman zuten eta hantxe arnastu zuen berriro heldu barik zeukan euskara. Gerra ostean berriro aldatu zituzten bera eta bere anaiak Bilbora. 1941ean, batxiler ikasketak hasi berri zituela Jose Antoniok, aita hil zitzaion giltzurrunetako gaitz batek jota. Umezurtz, anaietariko bat politika-arazoetan sartuta, amak ardura han-



Jose Antonio Retolaza (1929)

diak zituen umeak hazteko. Giro gogorra izan zen ordukoa etxean. Aldi berean, txikitan ikasita zeukan euskara galduz joan zen.

Santiago Apóstol aipatu dugu lehenago, eta ikastetxe honetan dauka jatorria Jose Antonio Retolazaren beste afizio handi batek: dantzak. Han ikasle zela fraide batek lehenengo eta Víctor Olaetak gero, gaztetxoekin dantzari-talde bat prestatu zuten. Olaetak, bere akademia eratu aurretxoan, bertoko dantzak eta gerra zibilaren osteko atzerrialdian Ipar Euskal Herritik ikasita zekartzan Zuberoako maskaradakoak irakatsi zizkion.

Irakasle handiarekin hasi zen, bada, lehenengo. Gero, dantzari-taldeko beste lagun batzuekin elkartu eta San Anton elizara joan zen beste talde bat eratzeko.

Bilboko Merkataritza Eskolan Merkataritza-Peritajea egin zuen Jose Antoniok. Ikasketok amaitu orduko familiaren arotzeriaren ardura hartu behar izan zuen, Luis bere anaiak frankismoaren erasoari ihes egin behar izan ziolako eta beste anaia nagusiak goi-ikasketak burutu behar zituelako.

Aldi hartan D. Claudio Gallastegi zenak bereganatua zeukanez, San Antonen eratu zuen taldean sartuta zebilen, *Acción Católica* eta.



Errotatxueta ikastola (c. 1932)



Familia osoa, Jose Antonio anaietarik gazteena da

Hemezortzi urte zituela, 1947an, Gasteizko Seminarioa joan zen. Euskara berriren berriz ikasi beharraz konturatu zen han eta bere kabuz hasi zen, ezkutuan, Zamarripak eta Lopez-Mendizabalek eginiko gramatikak esku artean hartuta eta irakurgai moduan Altunaren *Ipuinak* erabiliaz.

Eliz ikasketetan ibili arren, dantzarako zuen joera ez zuen baztertu eta *Txirinbil* izeneko dantza-taldean ibili zen seminarioan, Zuberoko maskaradakoak irakasten behinik behin. Egun batean, orduko alkatea eta Bueno Monreal apezpikua bera ere bitarteko zirela, *Principal* Antzokian egin zen ikuskizun handi batean agertu zen dantzari, *zamaltzain*. Urteetan eta urteetan Jose Antonio ibili den leku guztietan, aukera izan duenean, beti eduki du dantzari-taldetxoren baten ardura: Gasteizko Seminarioan bertan, Derion, Zamudion (abadegai zela), Arrazolan eta inguruetan (abade egin eta gero), Muxikan, e.a.



Jose Antonio gaztetan, dantzari

Arrazolan, munduko lehen euskal meza

Apaiz egin eta Arrazolara bidali zuten, 1957an. Hantxe egin zuen euskara bizi-biziarekin bat, eta berak idatzita utzi digunez:

Muxikako herria nire bigarren ikastola izan bada [lehena bere etxea izan zen, Bilbon], Arrazolako herria Unibertsitatea izan dot.¹

Urte hauetan, Arrazolan, munduan lehenengoz egin zen meza euskaraz. Erritu erromatarreko herrialde guztietan latinez eman ohi



Arrazolako umetxoekin

zen meza. Baina erritu bizantziarreko melkiten nonahiko hizkuntzan emateko Aita Santuaren baimena bazutenez, euskaraz ere eman zitekeela otu zitzaion Jose Antoniori. Horretarako, edozein hizkuntzatan meza emateko baimena zuen Francisco Ballester Derioko irakasleaz baliatu zen. Irakasle honen asmoa Seminarioko ikasleentzat, ikasketen osagarri moduan, elizkizunak grezieraz eta arabieraz eratzea izan zen hasiera batean. Baina asmo honen harira, eta bide honek eskaintzen zuen babes ofiziala aprobetxatuz, Karmelo Etxenagusia bera ere bitarteko zela, euskaraz meza egiteko asmoak indarra hartu zuen. Eta meza hori non? Bada Arrazolan, Jose Antonio Retolaza abade zegoen elizan. Vatikanoko II. Kontzilioak hala erabakirik, gerora etorri zen meza herriaren hizkuntzan emateko baimena. Baina Arrazolan 1959ko ekainaren 21ean egin zen euskaraz. Oraintsu harri bat jarri da herrian aspaldiko ekintza honen oroigarri.

Euskal meza antolatzen lagundu zutenetarikoz batzuek, Palestina eta Mediterraneoaren ekialdeko herriak ezagutzeko asmoz, oster egitea erabaki zuten, eta hala egin ere handik laster. Apaiz lagunok Istanbulen portutik paseoan kantu-kantari zihoazen batean, halako gizon puskak gisa horretan ikustean, kaian lanean sareak konpontzen zebiltzan andere batzuk, barreari eutsi ezinik, txaloka hasi zitzaizkien algaraz «kili-kili-kili-kili-kili...» edo holakoren bat esanaz.

Euskararen ekintzailea

Euskal Herri euskalduna da Jose Antonioren ametsa. Helburu horren atzetik egin ditu urrats guztiak: ekinbideak eta salaketak. Baztertua, gutxietsia eta debekatua zen garai haietan euskara. Galtzeko zorian, zoritxarrez. Mingarria zen Retolazarentzat eta beste askorentzat. Hego Euskal Herriko 339 abadek gutun bat idatzi zieten 1960an Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako apezpikuei, askatasunaren eta euskararen zapalketak salatuz. Tarteko izan zen, aurreko eta osteko beste hainbat eta hainbat ekintzatan legez, Jose Antonio Retolaza.

Baina ez da salaketa hutsean geratu izan. 1961ean, Elorrioko *Funcor* ikastetxeko irakasle izateko eskaintza hartu zuen Jose Antoniok. Emiliano Iturraranek bultzaturiko kooperatibaren eskola partikularra zen. Ikastetxe handitxo bat zen, 250-300 ikasle ingurukoa. Zuzendari ere egin zuten handik laster, 1962ko urrian. Baldintza bi jarri zituen bakar-bakarrik: dotrina bere erara azaltzeko askatasuna eta euskara irakasteko abagunea izango zituela.

Hemen sortu zen bere lehenengo eztabaida gogorra agintariekin. Elorrioko alkateak salatu egin zuen Jose Antonio *Funcor* ikastetxean euskararen alde zeukan jarreragatik: gobernadorearengana jo zuen. Honek, berriz, Pablo Gurrutxaga apezpikuarengana. Ikastetxe hartatik alde egiteko agindua eman zion gotzainak. Eta



Francoren garaian elizarekin izaniko gorabeherak umorez gogoratuta. (Kili-Kili, 163-164. z., 6. or.)

Jose Antoniok alde egin zuen handik eta parrokiatik ere, apezpikuari menpetasuna zor ziola esanez, baina gobernadorearen menpean zegoen apezpikuari ezetz. Eta familiaren Bilboko etxera joan zen beraz, gaixorik zegoen aitzakian.

Aukera ikusi zuenean, giro itxi horretatik aldentzeko ere, neurri batean, Madrilera jo zuen 1963an, Psikopedagogia ikasketak egite-

ra. Jose Antonio Retolazak inoiz aitortu duenez, hango gaietatik ez zuen gauza handirik ikasi, baina euskara ikasi eta irakatsi bai. Dena dela, ikas-saioetariko ohar eta oinarri asko kontuan hartuko zituen ostean haurrentzako egin zituen lanetan: ideiei eta asmoei pertsonaien itxura emanez gero hobeto ulertzen dituztela neska-mutikoei, urrunetik urrunerako ekintzek zabalkunde handiagoa dutela (aldizkarien sistema), e.a.

Bilbon, euskarazko meza

Madriilen zegoela, Kontzilioak herri-hizkuntzak onartu zituen liturgiarako, 1963ko abenduan. Baina Estatuko hizkuntza ofiziala nahi zuten herri-hizkuntzat hartu askok. Hemen, gaztelania, jakina. Jose Antoniok Bilbon, Don Claudiorekin jardun zuen batean, Bizkaian aldaketa hau 1965.eko urtarrilean erdaraz baino ez zutela egingo jakin zuen. Liturgia berria, hasieran, irakurgaiak lekuan lekuko hizkuntzetan ematera mugatzen zenez, berak behingoan, inori ezertxo ere

esan barik, liturgia euskaratu –Kerexetak eginitako itzulpenak jasota–, erdarazkoen eredu berdinerara bere kontura inprimatu eta Gotzaindegiko Liturgia Batzordeak bidaltzen zituela iragarritz, Bizkaiko eliza guztietara igorri zuen. Apezpiku jaunak esker on batzuk jaso zituen meza euskaraz emateko aukera hori eskaintzeagatik... Eta, noski, su eta garri jarri zen.

Elizaren barruan euskararen aldeko hurrengo ekintza gogorra Bilboko lehenengo euskarazko meza izan zen. Hasiera batean Jose



Antonio bera zen meza hori emateko, berea izan zen lehenengo asmoa eta. Bilbok hiriburu moduan zeukan indarraz konturatuta eta beste herri txikientzako eredu izango zelakoa, ekin eta ekin ibili zen meza hori lortu arte. Don Claudiok orduko egoera politikoa zela eta nahikoa buruhauste zeukanez gero, Jose Antoniok Abandoko bere parrokiara jo zuen lehenengo mezarako ordua lortzeko asmoarekin. Meza guztiak igandeetan eta eguerdira arte baino ez zirenez gero, ez zuen San Bizentin aukerarik izan, azkenengoa berandu amaitzen zelako. Ezinbestean, bada, Don Claudiorengana jo zuen berriro ere. Azkenengo meza 12:30etan zeukanez, ostean egitea erabaki zuten, eta erdi ezkutuan, ez aldare nagusian, Andra Mariren alboko aldarean baizik. *Txinpartak* antzerki-taldeko gazteak hartu eta meza egingo zela ahopean zabaltzeko agindua eman zien.

Heldu zen, bada, mezako eguna eta, Jose Antonio sakristian apaiz-apaingarriak janzten zegoela, Don Claudio sartu zen, ikaratuta.

Euskarazko mezara zetorren jendetzak ez zien aurrekora etorritakoei irteteko lekurik uzten. Arazoa konpontzeko bide bakarra aldare nagusian meza ematea izan zen. Meza isila, sermoi barik, izango zela adostua zuten apaiz biok. Baina hasi eta elizan jendea bihotza hunkituta eta pozarren, euskara lehenengoz entzuten zutelako elizan. Isilik egon behar zuen Don Claudioren odola, berriz, gero eta beroago eta hitz-jarioago. Hurrengo astean meza izango zela iragarri ere denen aurrean. Hortxe hasi zen SanAntoneko meza ospetsuaren historia.

Garai hartan ikasketak zirela eta, Madrilera atzera eta aurrera zebilenez, *Colegio del Brasil* izeneko egoitzan lehenengo, *Colegio de San Juanen* gero eta euskal ikasleak zeuden lekuetan taldetxoa batu eta han ere meza euskaraz ematen hasi zen Jose Antonio. Txandaka Bilbora ere etortzen zen San Antonen meza ematera.

Jose Antonio bezalako abade eta kristau euskaltzale askoren bultzadaz onartu zen azkenean euskara liturgian.

Kili-Kiliren jaiotza

sikopedagogia ikasketak 1965ean amaitu zituen eta ordurako bazerabilen buruan haurren euskara suspertze-ko asmoa. Madrilen sortu zitzaion kezka hau, eta ezaugarriak eta irudia gauzatuz zihoazkion, baina izena falta: nonahi eta edonorekin euskaraz hitz egingo eta hitz egitera bultzatuko eta kilikatuko zuen ume euskaldun eta euskaltzale baten izena.

Istanbuleko portuko sareen kresal usaina etorri zitzaion gogora eta bat egin zuten andere haien algarak eta umeentzat ezten eta gozagarri izango zen izenak: *Kili-Kili*. Gero konturatu zen, Karmelo Etxenagusiak egin zion ohar

Kili-Kili aldizkariaren lehenengo aldia.
Debekatu aurreko azken zenbakia

bat zela eta, bazegoela izenburu horrekin Paulo Zamarripa abadeak argitaraturiko kontakizun-sortatxo bat. Baina ordurako beranduegi zen, kalean zegoen eta *Kili-Kili*.

Lehenengoz, 1966an, agertu zen *Kili-Kili*, ezkutan ateratako aldian-aldiango argitarapen moduan, eta ume-itxura hartuta, San Antoneko zubi ondoan jaio berri. Jose Antoniok berak antolatu zuen *Euskal Katekesiaren* ekintza moduan agertzen bazen ere, isilpean egin behar izan zuen lan guztia (testuak, irudiak...), multikopiaz, 80 aleko tiradaz hasieran, baina 2.000 alera heldu zen handik lasterrera. Herririk herri zabaldu zuen bere aldizkaria lekuan lekuko apaizen eta euskaltzale askoren laguntzarekin. Apurka-apurka harpidedun mordoa lortu zuen, baina hiru urte egin ostean orduko agintariak debekatu egin zuten.

Jarraitzeko ezinbestekoa zen, bada, lege-babesa. Lehenengo eta behin sortu berri zegoen *Euskerazaleak* taldearen laguntasuna eduki zuen baina ez zen legezko baimenik lortu azkenean. Aldizkaria hil egingo zela iragarri zuen, 1969ko azaroaren 10eko 5. zenbakian, eta hainbat gutun jaso zuen Jose Antoniok, Bizkaiko herri guztietako ume koskorrek bidalita.

Gutun haietan ohartu zen ume euskaldunek euskaraz idazten ez jakinez gainera, nola idazten zuten. Ez zen harritzekoa, eskolan baztertua eta debekatua zegoen eta euskara. Orduantxe atondu zuen neska-mutikoak euskaraz alfabetatzeko sistema, hiru mailatan:

1. maila (*umeentzat*): belarriz ekiena begiz ikasi egien.

2. maila (*gaztetxoentzat*): berba egitean konaturatu bage erabilten ebezan hizkuntza-arauekaz (gramatikaz) jabetu eitezan.

3. maila (*gaztetxo-gazteentzat*): enparau euskera motak ikasi, edo behintzat, ezagutu egiezan.

Eta bide batez, hiru mailetan, hareen euske-rea konpondu eta aberastuz osotu.

Lehenengo mailarako, LAN ETA LAN koadernoak asmatu, egin eta erabili genduzan.

Bigarren mailarako, EKIN ETA EKIN orriak (gero koaderno bihurtzeko asmoaz) erabili genduzan,

Hirugarren mailarako, JARRAI koadernoak egitekoan geratu ziran, Institutuzino barriak sorturik, euskerearen irakaskuntzaz eurak arduratu ziralako.²

Hasierako asmo hau guztiz bete ez bazen ere, zati handi batean aurrera eraman ahal izan zen, 70eko hamarkadan eratu zen sare ikaragarriari esker. Alfabetatzerako *Kili-Kili lan ta lan* egitarau hau *Euskerazaleak*-en onartu egin zioten. Hala-holako babesa ere heldu zen erakunde honen bitartez, aldizkari ez ziren horrelako argitarapenentzat zirrikitu bat uzten zuelako orduko legeria zorrotzak. Ez zegoen herririk, ez txikirik ez handirik, Bizkaian lehenengo eta beste lurraldeetan gero, *Kili-Kili*ren lagunik ez zeukanik: «Teilabako ikastola» zen, benetan.

Arin zabaldu ziren lan-koaderno hauek eta helburua euskara pozgarri egitea zenez gero,

Kili-Kili Sariketa Nagusia sortu zen: neska-mutikoei liburuxketako lanak egiteagatik, idatziak zuzendu ostean, puntuak ematen zizkien *Kili-Kutxak*. Gero, puntuen truke, saria: Euskal Herria ezagutzeko ibilaldia. Autobusak haurrez betetzen ziren udako oporretan.

Urte hauetan 18.000 umetik gora ibili zen giro honetan sartuta (7.500 Bizkaian, 6.000 Gipuzkoan, 4.000 Nafarroan, 500 Araban eta 100 bat Lapurdin).

Jose Antonio Retolazaren arduretarik nagusia ekintza hau ume euskaldun guztientzako izatea zenez, ahalegin handiak egin zituen neska-mutikoak doan jaso zitzaten material guztiak, eta lan handia egin zuen ekintzetako

zorrak kitatzeko dirubideak lortzen. Lehenengo eta behin Bilbon orduantxe zeuden euskaltzale handien laguntasuna izan zuen. Gero, apurka-apurka, guztiz legezaturiko erakundea ez bazen ere, herri erakunde eta kutxa batzuen diru-babesa jadetsi zuen: Bilboko Aurrezki Kutxa, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Nafarroako *Príncipe de Viana* erakundea, Arabako Foru Aldundia, Eibarreko *Euskeralagunak*, Iparraldeko *Seaska*... Bilboko *Euskerazaleak* taldeak, gainera, eten barik bere babesa eta dirulaguntza eskaini zizkion. Beste alde batetik, urte hauetan Bilboko Somera kalean hartu zuen egoitza *Kili-Kilik*, eta jarraian lanean jardun izan duen laguntzaile talde finkoa sortu zen.



Kili-Kili aldizkariaren bigarren aldia: *Lan ta lan* koadernoak

Euskal haurren eredu

Kili-Kilik haur baten irudian gauzatu zituen asmatzailearen asmoak eta ardurak. Ume-itxurako pertsonaien erabilera honek badu lotura, beharbada, gerra aurreko euskalgingtzaren loraldian neska-mutikoei zuzendutako beste lan batzuekin: Isaak Lopez-Mendizabalen *Xabiartxo. Umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idaztia* (Tolosa: E. Lopez, 1925...) eta *Umearen laguna: irakurtzen ikasteko biderik errezena* (Tolosa: Lopez-Mendizabal, 1931...), Pirmin Iturriotzen *Txomiñ-ikasle: Euzko-umiei irakurtzen erakusteko lenengo idaztia* (Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1931), e.a.

Kili-Kili ere aurreko haur eredugarrien eskutik zetorren. Bere lehenengo berbetara jotzea baino ez daukagu:

Euskalduna naz eta euskerazalea.

Euskeraz irakurten eta idazten be ikasi dot.

Jaungoikozalea naz.

Munduko guztiak maite dodaz: zuri ta baltz, gorri ta ori, txiki ta aundi.

Baina euskaldunak maiteago dodaz. Eta euskaldunen artean ume ta gaztetxoak maiteen.

Zu euretariko bat zara.

Artu egizu, ba, besarkada aundi aundi bat.

Zeuri laguntzera natorkizu gaur.

Euskaldun osoa izan gura ei dozu: euskeraz irakurten eta idazten ikasi gura ei dozu.

Neuk lagunduko dautsut ba.

Nire esanak egiten ba'dozuz, errez-errez, igarri barik, ikasiko dozu.

Biok euskerea aurrera eroango dogu.

Gero arte!³





Kili-Kili anaiak: Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdikoa

Beste alde batetik *Kili-Kiliren* jatorria azaltzeko mitologiatik hur dagoen azalpena erabiltzen zen. Lehenengoa, Bizkaikoa, San Antoneko zubiaren ondoan jaio zen, Bilboko eliza garrantzitsu eta aspaldikoaren ondoan. Bere sortzaile zen apaizarekin lotzeko bide erraza, beraz.

Gogora ekarri behar San Antoneko elizak ordu-rako euskaldunentzat zeukan sentimenduzko balio handia ere. Ostean, Gipuzkoako *Kili-Kili* Arraten jaioko da; Nafarroakoa, Aralarreko San Migelen; Iparraldekoa, Sarako Olhainen; Arabakoa, Estibalitzen.

Lan ta lan

Haurraren irudiaren erabilera honekin batera deigarriena, beharbada, alderdi grafikoa dugu *Kili-Kili* honen bigarren aldian, *Lan ta lan* koadernoetakoan. Ezinbestean aipatu behar da hemen Lander Gallastegi, Jose Antonio Retolazaren lagun handia. Lander arkitektoa da eta berarengana jo zuen asmo berriarekin, irudigilea behar zuela eta. Materiala sortu eta zirriborroak eman zizkion, eta handik eta lasterrera irudia eginda agertu zen. Aldi hartarako indartsua, bai formetan, bai jarreretan...

Silutegi edo moldiztegiko lanen kostua arindu beharrak tinta-kopurua murriztea ekarri zuen: kolore bi bakarrik (laranja eta berdea) eta beltza. Papera mardula eta marfil kolorekoa ia. Eta aurrezteko modu hau iraultza grafi-

ko ikaragarria izan zen, plastikotasun handikoa: lerro beltzen detaileen eta paperaren beraren zuriunearen arteko jokoak, tinta bien mantxen oposizioa eta nahastea... Irudien besteko balioa zeukaten askotan letrakerak eta sinboloek, Euskal Herriko artisautzako eredua berreskuratzen zutenak.

Pertsonaiak ikuspegi berrietatik azalduta zetozen: atzerik hara, ezkutuka, taldeka... Pertsonaien proportzioak, handitasunak eta txikitasunak, balio espresiboa zuen. Egoerarik formalenak eta larrienak umore finaz leuntzen ziren (ikastolako gela trena da, kakaleku eta guzti; Herodes erregeak trikornioa dakar jantzita buruan⁴; Orreagako borrokan euskaldun batek txiza egiten die troka gainetik behean dauden franko koitaduei; Apostoluek behatzetako atzazalak luze-luze dituzte Azken Afarian...).

Lan ta lan koadernoaren beste ezaugarri bat edukiak eurak ziren. Ez zuten orrialde askorik, baina zenbaki bakoitzak aurrez ezarritako alfabetatzerako sisteman mailarik maila betetzen zuen egitaraua. Beste alde batetik material osoa zen, era askotako ikasgaiak hartzen zituen, entziklopedikoa eta neurrikoa: hizkuntza, matematika, geografia, historia, erlijioa... Eta beti euskal herri-jakintzen eta folklореaren aipamenak eginez: haur-kantuak, jokoak, ipuinak, mitologia, e.a. Hasiera batean koaderno hauen egitura moldatzeko Iñaki Goikoetxeak laguntza handia eman zuen. Bera izan omen zen, hain zuzen ere, *Lan ta lan* azpтитuluaren asmatzailea.



Ekin ta ekin orria



Ikasgaiak azaltzeko ikuspegi berria: ironia eta hurbiltasuna



iru errege ziran

Aldaketa urteak

so gogorrak izan ziren 1970eko hamar-kadaren azkenengo urteak, gorabehera handikoak bai euskaigintzan bai politikan. Ikastolen eta euskarazko jaialdien debekuak, isunak, atxiloketak, espetxeratzeak. Giro horretan, euskal apaiz askok *Gogortasuna* taldea eratu zuen eta *Gogor* izeneko itxialdiak eratu zituzten Bilboko Gotzaindegian eta Derioko Seminarioan. «Gogorkeriaren kontra gogortasuna» zen euren ikurrirritza.

Jose Antonio ekintza hauetan ere sartuta ibili zen, eta zubi-lanak egin sarri abade gazteen eta helduen artean. Garai honetako emaitza dugu, esatera-



Kili-Kili aldizkariaren hirugarren aldia: komikia.
Lehenengo zenbakiaren azala

ko, *Gogor* izeneko diskoa, itxialdiotako kideen eta giroaren berri ematen duena. Argitalpena legez kanpokoak izan zen, mugaz bestaldean egina, eta Retolazak berak hartu zuen materiala diskoratzeko ardura.

Euskal Herria zapaltzen zuen Francoren zerbitzuko gotzainen esanera jardutea ezinezko

bihurtu zitzaien azkenerako Jose Antoniori eta beste abade askori. Eta euskaldunen aldeko lanetara erabat murgiltzea erabaki zuen. Gero, Mila Arrietarekin ezkondu zen, 1975ean. Handik urte batzuetara, berriz, Muxikara aldatu ziren, euren seme-alabak euskaldun jatorrak izan zitezen ziurtatzeko.

Franco 1975ean hil osteko aldaketa politikoak erakunde berriak eta beharrian berriak ekarri zituen. Halaxe, *Kili-Kili* erakundea ilunpetik argitara irten zen. Legeak debekatua zuen umeentzako aldizkaria berriro agertzea erabaki zen. Miguel Angel Astiz bitarteko zela harremana lortu zen Kataluniako gaztetxoek aldizkari batzuekin: *Cavall Fort* eta *Tretzevents* (Monserrateko Abadiako fraileen esku dagoena). Azken hauekin baino ez zen lortu hitzarmena [Grijalbo-]Dargaud etxetik ekarritako originalak batera erabiltzeko. Gero, aldi hartan Espainian zegoen komiki-etxerik handienara jo zen, *Bruguera* argitaletxera, eta hango zuzendariarengandik baldintzarik onenetan lortu ziren euskal neska-mutikoentzat oso

ezagunak ziren pertsonaien istorioen irudiak, *Creaciones Editoriales* markapean agertzen zirenak.

Bilbon 1977an antolatu zen *Kili-Kili Egunarekin* batera iragarri zen *Kili-Kili* aldizkariaren formatu berria. Komikiak hartzen zuen lekurik handiena: *Asterix*, *Mortadelo ta Filemon*, *Okel leize-gizon*, *Zipi ta Zape*, *Jilda ahiztak*, *Txabi ta Txibi*, *Errobin eta «Sheriff»*, e.a. Hasierako orrietan jardungai bat zegoen (historiarekin eta euskaltzaletasunarekin lotuta gehienetan) eta neska-mutikoekiko harremanerako erabiltzen zen (gutunak eta erantzunak, oharrak, e.a.). Orri-barrenak hiztegia argitzeko, mezuak edo pentsakizunak emateko eta babesleen propagandarako erabiltzen ziren. Azken aldera, azalean agertzen zen ospetsuari eginko elkarrietzeta (Iribar izan zen lehenengo elkarrietzetua). Honekin guztiarekin batera, jolasaren mundua indartzeko atalak, aurreko aldiko opariak eta puntuen sistema berreskuratzen zutenak, *Kili-Sariketak*, *Ezetz jakin* eta halakoak.





Kili-Txorta bildumako liburuxka batzuk



Nanai aldizkariaren azala




Pan-Pin aldizkariaren azala



Kili-Kiliren kantua, Zorion Egileorrek eta Jesus Eguzkitza Eguzkik eginikoa

Laguntzaileak eta ekintzak

Aldizkari hau moldatzeko jatorrizko komikietako gidoiak euskaratu egiten ziren: lehenengo bizkaierara aldatzen ziren testuak eta gero euskara batura. Bazen *Erramun Basajaun* komikia, oso-osorik euskalduna. Honen gidoi batzuk Retolazarenak ziren eta marrazkiak Jesserenak. Bai honetarako bai beste lan askotarako (haurren gutunen erantzunak, elkarriketak, e.a.) hainbat kolaboratzailearen laguntza izan da *Kili-Kilin*: Xabier Peña, Manu Ziarsolo *Abeletxe*, Mikel Zarate, Lino Akesolo, Pedro Pujana... hildakoak. Bizi direnak ezin litezke hemen denak eman, asko dira eta. Retolazak bere alboan eten barik izan dituen artean bi aipatu behar dira baina: Iñaki Egurrola eta Pili Zuazo.



Kili-Kiliren garai honetan gizartean eragin zuzenagoa izateko ekintza bereziak agertu izan dira sarriago. Aipatu baino ez ditugu egingo batzuk. Aurreko urteetatik zetozen lehen gogora ekarri ditugun *Umeen Egunak* eta *Kili-Kili Egunak*. 1976an, Mungian eratu zen neska-mutikoentzako jai handi bat eta orduko egunkarien arabera hamar mila lagun elkartu ziren han; 1977an, Bilbon ikaragarritzko antolakuntza egin zen Azokako pabilioietan, hamabost mila lagun; 1978an, Donostian, hamalau mila; 1980.ean Iruñean, hamabost mila; 1982an, Gernikan, hamabi mila. 1986.ean Aramaion egin zen eta 1991.ean, azkenekoz, Leitzan.

Tokian-tokian ere eten barik atondu izan dira herrietan *Kili-Jaiak* eta *Kili-Jolasegunak* bertako arduradun eta neska-mutikoekin. Urte batzuetan *Kili-Ikastaroak* ere antolatu ziren gaztetxoentzat udako tailerrak eta ekintzak eratu.

Argitarapenen aldetik aipatzekoak dira *Kili-Txorta* izenarekin agertu izan diren liburuxkak: komiki luzeak, euskal ipuinen bildumak, erlijio-gaiak, eskolarako ikasgai osagarriak...

Zabalkunde handia izan zuten, 80ko hamarkadaren inguruan, *Kili-Irratiak*, ume eta gaztetxoentzat egiten ziren irratsaioak. Entzute handikoak izan ziren Jesus Eguzkiza *Eguzkik* eta Agustin Leturiagak *Bilboko Herri-Irratian* zuzentzen zutena eta Bernardo Ibarrek eta Carlos Olabarriagak *Arrate Irratian* eginikoa.

Umeentzako aldizkariak

Ume eta gaztetxoentzako aldizkarien tradizioa aspaldikoa da gure inguruko herrietan. XVIII. mendean agertu omen ziren lehenengoz. Euskarazkoak ere izan dira, *Kili-Kiliren* aurretik eta ostean. Seve Callejaren ustez badaukate bereizgarri garrantzitsu bat:

Aztertu eta arakatu ditugun euskarazko aldizkariak hizkuntzaren menpe sortuak dira batez ere, atzera egiten zuen hizkuntzaren erabilerari eutsi eta indar egiteko. Horregatik diogu, irakasteko bitartekoa izan dela batez ere, «ormarik [sic] gabeko eskola» —batek bere aldizkariaren izakera azaltzeko erabili zuen esaldia erabiliz—. bereizgarriak nagusia hori da hain zuzen, bere hizkuntzan eskolatu ezin den haur euskaldunari lagundu eta alfabetatu. Horrek berak dakar umeen erantzuna, hain bitarteko gutxi izanik, eurei eskaintako lekua betetzeko eta parte hartzeko beti prest.⁵

Berba hauek bete-betean lotzen dira bada *Kili-Kiliren* kantuko «teilabako ikastola» rekin.

Historiari begiradatxo bat eginez, aita Felipe Murietak burututako *Umeen Deia* (1959-1966) eta kaputxinoen *Zeruko Argia* astekari-ko Agustin Ezeiza buruak bideratu zuen *Pan-Pin* (1960-1970) aurkitzen ditugu.

Lehenago, baina, egin ziren han-hemenka ahalginak, iraupen handirik izan ez zutenak. 1927an Donostiako Luistarrek *Gure mutillak* argitaratu zuten, erdarazko *Juniorren* parekoa

izan zedin. Urte horretan eta hiri horretan ere *Txistu* agertu zen, goitik behera euskara hutsez agertu izan den lehen komikia, Donostiako *Argia* aldizkariaren inguruan, eta hil aurrean Aton Alaizak bultzatu zuena. Hamabi ale baino ez zuten plazaratu. *Euzko* aldizkariak *Gastetxu* orritxo zabaldu zuen neska-mutikoentzat, eranskin gisa, 1932 inguruan. Urte hauetako egitasmorik sendoena, behar bada, Isaak Lopez-Mendizabalek 1935ean hasita Tolosan argitaratu zuen *Poxpolin* izan zen.⁶

Mugaz bestaldean, gainera, 1940ko hamarkadatik zeuden hasita arlo honetan lanean aldian-aldian sortzen ziren argitarapenekin. Garrantzitsuenak, Raymond Iriederrek bultzatu zuen *Gazte. Eskualdun Gaztekariaren hilabetekaria* (*Laborari Gazte Katolikoen* babesean 1947an lehenengoz agertu zena) eta Pierre Landaburu eta Marc Legasseren *Potto-lo. Eskualdun haurren agerkaria*.

Hegoaldera etorriaz berriro, eta Deustuko eta Eubako Pasiotarrak bultzatuta oraingoan, 1976.ean hasita eta 1982.era bitartean, *Ikastola Gaztetxoenea. Haur eta gaztetxoentzako aldizkaria* izeneko argitarapena urte batzuetan zabaldu zen *Redención* aldizkariaren eranskin lege.

Jose Antonio Retolazaren *Kili-Kilik* komikiaren itxura hartu zuen urtean bertan, 1977an, *Ipurbeltz* ere sortu zen *Erein* argialetxearen babesean. Haurrik txikientzat oso esperientzia interesgarria bultzatu zuten Uztaritzen,

1992an, *Xirrixta* izenarekin, Frantzian argitaratzen zen *Tobogan* izeneko ereduia euskaratzen zuena. Egitasmoa eten egin zen baina hurbileko eredu bat jaio da oraintsu, 2001ean, *Nanai* izenburuarekin, Baionako *Ikas-Bik* moldatua eta Hegoaldean eskoletako *Gurasoen Elkarte*en ardurapean zabaltzen dena.



Ezetz igarri eta Kili Berri orritxoak



Oinordekotza eta gorazarreak

Jose Antonio Retolazak sarri erabili izan du *Kili-Kili* aldizkaria herri-erakundeek eta agintariek euskara eta hezkuntza direla eta harturiko erabakiekin desadostasuna agertzeko. Eraso ikaragarria jasan behar izan du azken urte hauetan Espainiako alderdi politiko eta komunikabide-talde indartsuetatik.

*Kili-Kili*ren bizitzak eta iraupenak kezkatutik, aldizkariaren ardura Bizkaiko Ikastolen Elkartearen eskuetan utzi zuen, 2001ean izenpetutako hitzarmenez. 234. zenbakitik aurrera erakunde horrek hartu du argitalpenaren eta aldizkariaren 5.200 harpidedunen fitxeroaren erantzukizuna. Geroztik, interneten ere agertu izan da *Kili-Kili* berria. Dena dela beste ekintza batzuek, *Ezetz igarri* sariketa eta *Kili-Berri* informazio-orria, 35.000 laguni heltzen zaizkienak, Jose Antonio Retolazaren eskuetan jarraitzen dute.

Azken urteotako gorabehera hauek, baina, ezin estal ditzakete euskarari eta euskal neska-mutikoen pozari eskainitako ekintza eta emaitza ederrak. Gutxi dira gure artean, adin batetik gorakoak behintzat, *Kili-Kili*rekin alfabetatu ez direnak eta *Kili-Kili*ren lagun, irakurle eta jarraitzaile sutsu izan ez direnak.

Jose Antonio Retolazaren lan oparo hau sarri aipatu eta aintzat hartu izan da gainera. 1975ean euskaltzain urgazle egin zuten eta

2000n euskaltzain ohorezko. 1984an Euskararen Aholku Batzordeko kide aukeratu zuten lau urterako. 1996an EIZIEk ohorezko bazkide izendatu zuen. Omenaldien artean: 1993an, *Labayru Ikastegiak* eta HABEK egin-dakoak; 1995ean, Muxikako herriarena. Arrazolan, berriz, munduan lehenengoz euskaraz egin zen mezaren oroigarria jarri dute herrikoek 2002.ean.

Hala ere Jose Antonio Retolazari egin lekio-keen omenaldirik onena berak behin San Antoneko zubiaren ondoan mundura ekarri zuen *Kili-Kili*, euskaldun eta euskaltzalea, euskararen eta euskal kontzientziaren susper-tzaile indartsu bihurtzea litzateke. Beti behar-ko baita, gure egoeran, euskara maitatzera, ikastera eta hitz egitera kilikatuko duen *Kili-Kili* bat.



Kili-Kili eta bere osaba

¹ *Kili-Kili*, 163-164 z., 5. or.

² *Kili-Kili*, 167-168 z., 6 eta 7. or.

³ *Kili-Kili lan ta lan* 1, 2 eta 3. or.

⁴ Lehenengoz argitaratu zenean Herodesek agertzen zuen trikornio hori, beldurrarren, banan-banan eta eskuz pintatu egin behar izan zuten ale guztietan, koroa itxura emateko.

⁵ Seve CALLEJA: *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986ra arte*, Bilbao: Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa, 1994, 206. or.

⁶ Ik. Javier DÍAZ NOCI: *Euskal kazetaritzaren historia*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999. <http://www.eusko-ikaskuntza.org/ephtml/>

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- José Antonio Retolaza
- Kili-Kili aldizkaria

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko uztaila

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-1973-4 (Lan osoarena)
84-457-1975-0

L.G.: S-797-2003